

ZUMARRAGA-URRETXU / Eider Rodriguez euskarazko taldean gaur

Zumarraga-Urretxuko euskarazko irakurle taldeak 2010-2011 ikasturteko hirugarren bilkura egingo du gaur, arratsaldeko 19:00etan. Bilkura hau Urretxuko liburutegian, taldeentzat egokitu duten gela batean izango da. Gaurko bilkuran, Eider Rodriguezen 'Katu jendea' ipuin liburua izango da aztergai, idazlea bertan dela. Beraz, interesa duen edonor joan daiteke tertuliara. Liburuaren inguruan solastuko direnez, beti ere hobeto liburua irakurrita eramatea, baina bestela ere ateak irekita daude edonorentzat. Hamabost lagun inguruko taldea elkartzen da hilabetero, adostutako liburu baten gaineko solasaldia egiteko. Gorka Azkarate da taldeko gidaria. Ekimena Zumarraga-Urretxuko udal euskaltegiaren eta Zumarraga eta Urretxuko udalen babesarekin antolatu da aurten ere. Ikasturtean zehar, zenbait idazlek saioetan parte hartzea espero da. Lehena arestian aipatu bezala, Eider Rodríguez izango da.